

GENERO PAREKIDETASUNA

BIZITZEKO IPUINAK, PENTSATZEKO IPUINAK



Bizitzeko ipuinak, pentsatzeko ipuinak



Egunon, lagunak. Zer moduz? Meriem dut izena, marokkoarra naiz eta bederatzi urte ditut. Izugarri gustatzen zait futbolean jokatzea eta lagunekin parkean jolastea.

Begira, eskolako lagunak aurkeztuko dizkizuet: Hannah, Chen eta Gotzone dira hauek. Eskolan lagun asko ditut baina gehienetan taldetxo honekin jolasten naiz.

Gotzone eta bioi, jolas-garaian futbolean aritzea izugarri gustatzen zaigu. Sarri neskek eta mutilek jokatzen dugu elkarrekin, hasieran pixka bat kostatu zitzaigun arren, neskek futbolean ez genekiela esaten zigutelako mutilek. Ederki frogatu diegu hori ez zela egia! Begira, jolastokian jokatu genuen torneotxo batean Gotzonek gola sartu zuen; sekulako ostikada eman eta, atezaina ipurdiz behera erori zen, baloi eta guzti!



Orain, jolas-garaian arazoa dugu, alegia, jolastokia txikia ez bada ere, ikasle pila gara eta joko askotan ibili nahi dugunez, denok ez gara sartzen. Batzuek goman aritu nahi dute, beste batzuek kukuka edo pilotan, guk futbolean, bakarren batek koreografiak sortu eta dantzan egin... Kontua da ez garela kabitzen eta, horrela, batzuetan haserretu eta liskartu egiten gara ikaskideekin. Arazo hau konpontzen lagunduko al diguzue?



Zer iruditzen zaizue jolas-garaian gertatzen zaiguna? Zuei ere hori bera gertatzen zaizue zuen jolastokian? Beste zerbait jazotzen zaizue? Aztertu ezazue ikasgelan, jolas-garaian zuen jolastokian gertatzen dena.

Zergatik ez egin jolas-garaian aritzeko jokoan zerrenda bat? Orain, imaginatu nolakoa izango litzatekeen zuen ametsetako jolastokia.

-
-
-
-
-
-
-
-
-
-
-

Nahi baldin baduzue, marraztu zuen ametsetako jolastokia. Marrazki guztiekin, gelan horma-irudi handi bat osatu dezakezue.

-
-
-
-
-
-
-
-
-
-
-

* Gida didaktikoan dituzue jarduera guztiak garatzeko orientabideak.

Amatxoren greba




Egunon! Hannah naiz, hamar urte ditut eta italiarra naiz. Rap dantzatzea eta beldurrezko ipuinak irakurtzea da gehien gustatzen zaizkidan gauzak. Ikasteak ez nau tiratzen gehiegi, nire anaia zaharrari bezala; badugu ahizpa txiki bat, oraindik hizketan ez dakiena.

Etxean bizi gara ama, neba, ahizpa txikia eta ni. Aita orain dela urte batzuk hil zen. Latza eta tristeza izan zen garai hura baina pixkanaka suspertzen hasi ginen. Aita, dena den, beti gogoan dugu denok...

Neba eta biok, egia esateko, desastre xamarrek gara. Gure gela anabasa hutsa da: arropa nonahi botata, zapatak armairutik kanpora, horietako batzuk lokatzez beteta, koadernoak aulki ginean metaturik, ikas-mahaja komikiez estalita, bolaluma lurrean sakabanatuta, jokoetako piezak nonahi barreiatuak... Amak esaten duen bezala, arrazoi osoz esan ere, ez gara eredu ahizpa txikiarentzat. Eskolan ere, ez gara ikasle onak, inondik ere.

Nolanahi ere, joan den igandean, parketik bueltan, etxean sartzean, sorpresa handia hartu genuen. Korridoreko sarreran zegoen kartel batek honela zioen:



Barre egin genuen eta nebari galdetu nion eskakizunak, greba eta lan-orduak hitzek zer esan nahi zuten. Halako batean, ama txantxetan ari zitzaigula ulertu nuen. Etxeko lana berak egin ezean, nork egingo ote zukeen? Soldatarena, berriz, are eta xelebreagoa, amak etxeko guztia garbitzearren, janaria erosi eta prestatzearren eta lisatzearren ezertxo ere kobratzen ez duelako. Zeregin horiek bereak ziren, horretaz inork ez zuen duda egiten.

Etxeko salan sartu eta, ama ikusi genuen, besaulkian etzanik. Musika entzunez, liburua irakurtzen ari zen. Begiak altxatu eta honela esan zigun: "Neska txikia eta biok bazkalduta gaude. Zuek, presta ezazue nahi duzuen."

Beraz, grebaren kontu hura ez zen txantxetakoa, benetan esan zuen. Sukaldean prestatu egin ez zegoenez, ogitartekoa prestatu genuen. Gure gelan dena berdín-berdína zegoen. Goizean utzi genuen bezalaxe, alegia: oheak egin gabe, arropa lurrean sakabanaturik... Desastre hutsa, hitz batez! Hori dena gutxi balitz bezala, ama telefonoz ari zen bere lagunekin, ganean zinera joateko planak egiten.

Huraxe izan zen gure gaurik latzenetako bat: hozkailuan janari-hondarren bila, gela osoan barreiatuta zegoen arropa zikinari eta kirroleko zapatilei zerien kiratsa usainduz...

Biharamuna, ordea, are eta okerragoa izan zen. Ontziak garbitu beharrik ez izateko, esne hotza eta gailetak hartu genituen gosarian. Eskolatik itzultzean, ama eta ahizpa txikia bazkalduta zeudenez, beste bokata bat prestatu behar izan genuen. Eta ikaraz ikusi genuen harraska hartako ontzi zikinen pila izugarri ugalduta zegoela. Ez zegoen atarramendurik: ogi zaharra gogorra zegoen eta frutarik ez zegoen etxean.

Gauean arrautzak frijitu genituen eta padera ontzi zikinen pilo gainera joan zen.

Bainugelarena ez dizu et aipatu; bai, egun horietan garbitu gabe, nazkagarri zegoen hura ere. Harraskako mendia gerroz eta handiagoa zen, zakarrontziko edukia bezala. Hautsa zegoen nonahi, hozkailua hutsik zegoen... ai, ama!

Amak besaulkian segitzen zuen, gertatzen ari zena ikusten ari ez balitz bezala. Anaiak eta biok korridoreko pankarta azpian bilera egin eta egoeraz jardun genuen tarte batez. Ados jarri ginen eta pankarta txikiago batean idatzi genuen:

Handik tarte batera amaren mezua agertu zen:

Gaur arratsaldeko seietan



Orain proposatuko dizu et talde txikietan elkartzea, istorio honek, zuen iritziz, nolako bukaera izan zuen erabakitzeko. Era berean, etxeko lanak antolatzen dituzuen ere jorratu behar duzue, taldeka.

Guztiok hein berean laguntzen duzue? Nola antolatzen zarete? Horrela antolatzea bidezkoa al da?

Ipuinaren bukaera azalduko dizuet, beraz:

Amatxoren erantzuna ikusirik, hirurok egongelan elkartu ginen. Anaiak heldu zion hizketari:

- Ama, egoera honi amaiera eman nahi diogu. Horregatik, hori nola lortu behar den jakin nahi dugu.

-Ederki. Oraingoaz, etxea txukuntzen lagundu behar didazue. Egunero, eskolara joan aurretik, egin zuen oheak eta txukundu zuen logela eta bainugela. Goizean ogia erostera joango zarete, txandaka. Eguerdian, mahaiak ipini eta jaso behar duzue. Ilunabarrean, zaborra jaitziko duzue. Larunbatean, asteko erosketak ekartzen eta afaria prestatzen lagunduko didazue-, esan zigun amak. Ikaragarria zen hainbeste lan egin behar zirela entzutea baina, beste erremediorik ez zegoela ikusirik, onartu egin genuen.

Pozik gindoazen handik baina amaren ahotsa aditu genuen berriro:

-Lana nola banatuko dugun erabakita dago baina ene soldata igotzeaz ez dugu hitzik esan.

Ez genuen deus ulertu. Soldata jasotzen da lana etxetik kanpora egiten denean, ezta? Nork bere etxean zein soldata jaso behar ote du?

-Zer esan nahi duzu soldataren igoera horrekin, ama? - galdetu nion nik.

-Erraza da hori: jaso nahi dudana soldata zuen notak dira. Ikasten hasteko prest bazaudete, greba bertan behera utziko dut oraintxe; bestela, greba mugagabea izango da. Zuek erabaki.

-Hori ez da erraza izango, ama. Pentsatu egin behar dugu...-, erantzun nion.

-Ederki-, ihardetsi zuen amak.



Gelara joan ginen biok, arazoa aztertzeraz.

Kezkaturik eta ikaratuta geunden, amak planteatu ziguna betetzeko gauza izango ote ginen, buruari bueltaka. Gurea antolatu beharko genuen, beraz, ondo antolatu, gainera: etxeko lanak, eskolakoak, ikasi eta aprobata... Zer nahi ote zuen amak horrekin guztiarekin?

Azkenean ulertu genuen: amak, horrekin, erakutsi nahi zuen gurekin arduratuta zegoela eta guk, geure aldetik, onartzea erabaki genuen. Horrelaxe bukatu zen, halako batean, amatxoren greba. Harrezkeroztik etxeko lanak hiruron artean banatu ditugu. Hortaz aparte, jakina, ikasi egin behar dugu eta, gainera, nota onak atera, amatxoren soldata ordaindu ahal izateko.

Etxeko lanak: nork zer egiten du?



Egin ezazue orain ikerketa moduko bat, zuen etxeetan lana nola banatuta dagoen argitzeko. Apunta ezazue ondoko taula horretan, guztira, zenbat gizonezko, emakume, mutil eta neskak diharduten lanean. Ondoren, iruzkindu ikasgelan ikerketako emaitzak.

JARDUERA	NESKATOAK	MUTIKOAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
 Arropa garbitu				
 Oheak egin				
 Josi				
 Koadroa eskegi edo etxeko hobekuntza txikiak egin (altzari bat muntatu, lanpara jarri, etab.)				
 Ordain-agiriak eta gainerako paperak kudeatu (pasaportea atera, beka bat eskatu, etab.)				
 Matxura soilak konpondu (kanila, entxufea, etab.)				
 Zaborra atera				
 Nirekin sendagileagana joan				
 Eskolako bileretara joan				
 Beste senitartekoei deitu				

JARDUERA	NESKATOAK	MUTIKOAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
 Jaso eta antolatu				
 Urtebetetze-egunez gogoratu				
 Bainugelak garbitu				
 Etxea ekortu, eskobatu				
 Zorua garbitu				
 Kristalak garbitu				
 Erosketak egin				
 Zer jango dugun erabaki				
 Norbait gaixo dagoenean, etxean geratu				
 Janaria prestatu				
 Mahaia ipini				
 Arropa lisatu				
 Gosaria prestatu				
 Arropa zabaldu eta jaso				

Erabakiak hartu nahi ditugu

Chen naiz ni, Nikaraguako mutiko bat, eta bederatzi urte ditut. Nikaragua Amerikako herrialde polit-polita da. Irakurtzea, pelikulak ikustea eta ipuinak idaztea da gehien gustatzen zaidana. Futbola, berriz, ez jokatzeko, ezta ikusteko ere.

Meriem, Gotzone, Hannah eta ni lagun minak gara baina, halaz ere, jolas-garaian ia inoiz ez gara elkarrekin jolasten, Meriemi eta Gotzoneri futbolean aritzea izugarri gustatzen zaielako; beraz, jolastokian lehiaketa edo txapelketarik jokatzen denean, horiek biak ikusi ere ez ditugu egiten.

Hannahek eta biok, ordea, tarte luze-luzeak ematen ditugu jolas-garaian elkarrekin. Ipuin asko idazten ditut eta neskak txoriak baino kontentuago aditzen ditu. Nolanahi ere, Hannah oso irakurle zorrotza denez, ez du ikusi nahi printze-printzesarik. Askatutako printzesekin eta printze eder ausartekin kokoteraino dagoela dio. Bera eta biok gustura aritzen gara, barre-algaraka.



Horregatik idatzi nizkion hainbat ipuin xeble, hala nola suhiltzaille izan nahi zuen printzesarena, begetariano izan nahi zuen lehoiarena edo beti negar batean zegoen printzearena... Hannahentzat zoragarriak dira horrelakoak.

Istorio horiek asmatu eta kontatzea gustukoa dudan arren, ezkutuan aritzen naiz beti. Ikaskideek niri iseka egitearen beldur naiz, lotsatu egingo nintzateke gauza horiek neskenak direla esango balidate.



JARDUERA

Zer egin behar dut, zuen ustez? Ezkutatu egingo naiz, idaztea atsegin dudalako? Zaletasun hori esplikatu behar diet, iseka egiten badidate ere? Idaztea nesken gauza dela iruditzen zaizue? Horrelako zerbait gertatu zaizue inoiz?

Iruzkindu ezazue hori denon artean eta idatzi hemen zuen ondorioak:

Handwritten-style text area with three horizontal dotted lines for writing.

Azkenean, gelako kideei azaldu nien futbolearen ez nuela jokatu nahi, hori gustukoa ez nuelako. Jolas tarteetan nahiago izaten nuela liburutegira joan, ipuinak idatzi edo irakurtzera.

Hasieran modu berezi samarrean begiratu zidaten. Baina gerora esan zidaten bazekitela futbola ez zitzaidala gustatzen eta lasai egoteko, hori ez zelako ezer berezia. Gainera, esan zuten, bazekiten oso-oso txarra nintzela futbolearen. Denek barre egin zuten. Orduan ohartu nintzen beste ikaskide batzuei ere horixe gertatzen zitzaizela.

Astean behin, jolas-garaian, liburutegira joateko baimena eskatu genion irakasleari eta, berak, baietz! Orain, asteartero sartzen naiz liburutegian. Eta ez ni bakarrik: pixkanaka, beste haur batzuk ere animatu baitira liburutegira etortzeko. Orain erabaki dugu egun horretan, irakurri edo idatziak ditugun ipuinak elkarri kontatu egingo dizkiogula liburutegi zaleok. Areago, ikasgelan antzezteko ere prestatzen ari gara, pentsa!

Gure ipuina



JARDUERA

Zer moduz iruditzen zaizue, denon artean zeuen ipuina idatzi eta, ondoren, antzeztea?

Ipuinaren gaia aukeratzeko, gogoan izan itzazue ikusi ditugun istorio guztiak eta hemen hitz egin dugun dena. Hiru hauek proposatuko dizkizuet:

- ✓ Lehenbiziko gaiak: futbola, jolas-garaia eta ez izatea jolasik umeentzat bakarrik eta neskentzat bakarrik.
- ✓ Bigarrenengoak: nola egin etxeko lanak, familiako kide guztiak erantzukizunak hartuta.
- ✓ Hirugarrenengoak: honetan, printzeak eta printzesak ez dira betiko modukoak izango. Bideo honek lagunduko dizue, noski: *Principiñas e Princesiños*, <https://youtu.be/bGkR-UF0mSo>


Pertsonaiak sortzeko, antolatu zaitezte taldetan; ondoren, kontatu nahi duzuen istorioaren arabera sortuko dituzue pertsonaiak. Eman buelta bat baino gehiago buruari, egin zuen marrazkia eta zehaztu pertsonaia horien nortasuna: zer gustatzen zaien, zer ez, nongoak diren, zenbat urte dituzten, etab.

Pertsonaiak aukeratuta eta gaia erabakitakoan, ipuina asmatzen has zaitezke.

Zer da zuren aisialdian egin nahi duzuna?

Lotsatia edo irekia da?

Non dago nire pertsonaia?



Pertsonaien fitxa

#01

Izena:

.....

Sexua:

Adina:

Nongoa da?:

.....

Zer egiten du? Ikasten ari da? Lanean dabil?:

.....

Zer du gustukoa?:

.....

.....

Zer ez du gustukoa?:

.....

.....

Pertsonaiaren inguruko beste hainbat zertzelada:

.....



Hurrengora arte!



Meriem eta biok lortu dugu jolas-garaiaren txandaka aritzea. Orain, astelehen, asteazken eta ostiralean futbolekin jokatzeko dugu. Egunero-egunero jokatzeko ez izatea goxoa ez bada ere, neurri horrekin ados gaude, horrela denok izango baitugu jokatzeko lekua. Horri esker, asteartean liburutegira joan ahal izango naiz Chenekin. Egia esateko, zoragarriak dira horren istorioak!

Hannah aspaldi honetan jo-ta-ke dabil ikasten eta etxeko lanetan laguntzen, tarteka kostatzen bazaio ere. Baina, amaren grebarekin gogoratu bezain laster, erreakzionatu eta lagundu egiten du, anaiak bezalaxe.

Meriem, Chen, Hannah eta laurok espero dugu zuei beste gauza asko ere ulertzen eta ikasten lagundu izana. Orain komeni da hausnartu dugun guztia partekatu eta beste pertsona batzuei kontatzea. Prest al zaudete horretarako?

HURRENGORA ARTE, LAGUNOK!

Antzeztu ezazue ipuina beste geletako kideen aurrean, senideen aurrean... eskegi ezazue ikastetxeko blogean, aldizkarian... alegia, zuen ustez, ikasi duzuen jende askok ikusiko duen lekuan.

Pertsona askok nahi dutena egin ahal izateko borrokatu izanari esker aldatu dira gauzak pixkanaka.

Gizon eta emakumeok eskubide eta aukera berberak izan behar ditugula jende askok baldin badaki, gauzak azkarrago aldatuko dira.

